

BERDINOLA

I eta II

PAREKIDETASUNA eta
KULTURARTEKOTASUNA
LANTZEKO

LH1 eta LH2. mailetarako
HEZIKETA PROGRAMAK

Egilea: **Maite Franko**, idazle, ipuin-kontalari eta pedagogoa. 686.686.094

Programen aurkezpena

Sarrera

Esku artean duzun *Berdinola I eta II* heziketa programak, Parekidetasuna eta Kulturartekotasuna lantzeko helburuarekin sortuak dira, eta egun (2013-14 ikasturtea) Zarauzko LH1 eta LH2. mailetako ikasgeletan (2010-11 ikasturtetik) eta Hernanikoetan (2012-13tik) martxan daude, parte hartzen ari direnen artean oso balorazio onak jasoz.

Berdinola I eta IIren osagaiak **ipuin kontaketa saioak** (bi saio gela bakoitzeko) eta gelan ikasturte osoan zehar lantzeko **material didaktikoa** dira.

Bi programak **bi multzotan** eta **4 unitatetan** banatuta daude:

I. Multzoa: *Parekidetasuna* :

- Emakume eta gizonen arteko berdintasuna: bi unitate eta kontaketa saio bat.

II. Multzoa: *Kulturartekotasuna* :

- Kultura desberdinen arteko berdintasuna: bi unitate eta kontaketa saio bat.

Lau unitate didaktikoak kontaketa saioaren **aurretik** eta **ondoren** erabiltzeko sortuak dira. Era berean, materiala zein ipuinekin batera, fitxa didaktikoak aurkezten dira. **Material honen helburua bikoitza da**: alde batetik, umeen **heziketarako** baliagarria izatea (gai hauen inguruko informazioa handitu eta, gogoeta egiteko aukera ematen dutelako). Eta bestaldetik, **ikerketarako** (umeei dituzten iritziak eta ezagutza mailaren inguruko datuak jaso eta aztertzen direlako).

Azkenik aipatu, programon emaitza onei esker, ikasturte honetan egile berak sortutako proiektu berri bati hasiera eman diotela Zarauzko LHko 3. mailako eskola-umeek, *Babesola* izenekoa, hauengan drogamenpekotasunaren eta delinkuentziaren prebentziorako babes faktoreak lantzea eta jarrera osasungarriak bultzatzea helburua duena.

Nor da Maite Franko ipuin-kontalaria?

Maite Franko (Irun-Hondarribia, 1971), *txipiroi-arrantzale* eta *lehorreko lamia* baten zazpigarren alaba da. **Antzerkigintza, irakaskuntza, bikoizketa** eta **literaturaren** ur handietan oinak bustitakoa dugu. 2004 urteaz geroztik, **ipuin-kontalaritzaren** ozeano barean dabil, ordutik hona 1.700 saiotik gora eskainiz. Bertan, ahoz aho ibilitako ipuinak, argitaratu berriak zein egileak berak sortutakoak jolas, asmakizun eta dramatizazioekin nahasten dira, barruan umore, misterio, "mezu positiboak" eta kresala ugari daramatzatelarik. Haren *opariipuinak*, ipuin pertsonalizatuak eta dohainikakoak, www.maitefranko.com eta www.ttiklik.com webguneetan irakurgai daude. Bertan sartu eta zeurea eskatu!

Programen edukiak eta helburuak

Hona hemen bi programen eduki eta helburuen erlazioa. Gure programak xumeegiak dira denak sakonki lantzeko, baina oso egokia iruditu zaigu, ahal den neurrian, txikitatik jorratzen hastea.

BERDINOLA I (LH1. maila)

I. multzoa: parekidetasuna

- Genero estereotipoak eta rola ipuinetan.
- Genero estereotipoak eta rola errealitatean.
- Genero injustiziak norberaren etxean.
- Femeninotzat eta maskulinotzat hartzen diren ezaugarri eta eginkizunak; berdintasuna lantzea hauen inguruko balorazioan.
- Gizartean oraindik dagoen maskulinitasun hegemonikoaren kontzientzia hartzea (maskulinitasunarekin lotutakoa *positiboago* baloratzen dela, alegia, femeninitasunarekin erlazionatutakoa baino) eta horren kontrako jarrera sustatzea.

II. multzoa: kulturartekotasuna

- Berdinen arteko tolerantzia, errespetua eta elkartasuna.
- Perfekzioa eta imperfekzioaren kontzeptuak; bertuteak eta akatsak.
- Desberdinen arteko tolerantzia eta onarpena.
- Kulturak eta etorkinak kontzeptuen lanketa.
- Desberdinaren ezagutza, ezezagunarekiko sor litezken beldurra eta aurreiritziak.

BERDINOLA II (LH2. maila)

I. multzoa: parekidetasuna

- Genero estereotipoak eta publizitatea.
- Genero estereotipoak eta estetika (edertasuna, moda ...)
- Emakumeen edertasun eredia eta osasuna.
- Gizonezkoen edertasun eredia eta osasuna.
- Edertasun eredia eta kulturak.
- Umeen jolasak eta genero eta rolekin duten lotura.

II. multzoa: kulturartekotasuna

- Berdinen arteko desberdintasun eta berdintasunak.
- Kultura desberdinen artekoak.
- Kultur estereotipoak.
- Etorkinen integrazio prozesua.
- Bertakoen pribilegio ikusezinak.
- Balio, ohitura eta sentimendu unibertsalak.

Edukien lanketa eta programaren egitura

Edukiak lantzeko beraz, ipuinak eta material didaktikoa izango ditugu.

- ~ Ipuin-kontaketa saio bakoitzean, hiru istorio entzuteko aukera izango dute, bakoitzak eduki bati helduko diolarik.
- ~ Unitate bakoitzari ere eduki bat edo bi egokituko zaizkio.

Bestaldetik, erabiliko diren ipuinak, kontalariak sortutakoak edo egokitutakoak dira, interesatzen zaizkigun mezuak ageriago gelditzeko.

Unitate didaktikoetako dinamikei dagokienez ere, era askotakoak daude: gelan bakarka zein taldean egitekoak; etxean gurasoekin egitekoak; auzoan, galdetegiaren bitartez informazioa jasotzekoak, jolas modukoak, hausnarketa ariketatxoak, sormenezkoak, eta abar.

Bi programen egitura, honako hau da:

I. Multzoa: Parekidetasuna:

- A) 1. unitatearen lanketa.
- B) 1. kontaketa saioa.
- C) 2. unitatearen lanketa.
- D) 1. eta 2. unitateen kontrol orria.

II. Multzoa: Kulturartekotasuna:

- E) 3. unitatearen lanketa.
- F) 2. kontaketa saioa
- G) 4. unitatearen lanketa.
- H) 3. eta 4. unitateen kontrol orria
- I) Programa osoaren ebaluaketa

Ebaluaketa

Programaren erdian eta bukaeran, irakasleei kontrol orritxo bat pasako zaie, eta bertan, (x batekin erantzuteko moduko galdetegi labur baten bitartez), azalduko lukete egindakoa eta ikusitakoa: umeengan ikusitakoa (jarrerak, iritziak, ezagutza maila, kontzientziario maila ..), materialaren erabilpen maila

(zer dinamika egin duten, zein ez eta zergatik), eta materialaren egokitasuna. Horrela, bi helburu beteko genituzke:

- Alde batetik, programak izan ditzakeen gabeziak edo akatsak konpondu ahal izango genituzke.
- Bestaldetik, irakasleen inplikazio eta konpromezu maila handitu egingo genituzke.

Bukaeran, balorazio galdetegi bat beteko lukete (aurrekoa bezain labur eta eroso) programa bere osotasunean aztertuz: ipuinen egokitasuna, interesa, kontatzeko era, materialen egokitasuna, lortutako emaitzak, zailtasunak, iradokizunak, ...

Programetan izena ematea

Zuen udalak programa hauetan izena eman nahi badu, mesedez, Maite Frankorekin harremanetan jar dadila: **686.686.094** telefonora deituz edo **maitefranko** **@hotmail.com** helbidera idatz dezala. Zuen beharrei egokitutako aurrekontua egingo nizueke.

Mila esker eta laster arte!